# NAhitA

Septiembre 2013ko Iraila
Nº 20.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua

## CONCURSO BELDUR BARIK LEHIAKETA 2013



%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

>> ERREPORTAIA Reportaje

MIKROMATXISMOAK

MICROMACHISMOS: LA VIOLENCIA INVISIBLE

>> CEPA ERMUA HHI

CENTRO DE EDUCACIÓN DE PERSONAS ADULTAS

# >> PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >> ´JABEKUNTZA ESKOLA´ren EGITARAUA

## SORMENEKINTZA TAILERRA (15 ORDU) / TALLER DE CREAKTIVIDAD (15 HORAS)

Del 16 de octubre al 13 de noviembre. MIÉRCOLES, de 17:00 a 20:00 h.

Irakaslea: Josune Bejarano (Skolastika) · **Matrikula: 5 Euro**

SormenEkintza talde-proposamen bat da, norbere alderdi sortzailea eta sormenezkoa landu duten emakumeentzat. Elkar ezagutzeko eta aintzakotzat hartzeko komunikazio-espazio ireki eta dinamikoa, arteari generoaren ikuspegi bat aplikatuz. Tailer honetan material, teknika eta ekintza landuko ditugu, artea elkarrekin hausnarketa egiteko eta hazkunde pertsonal eta kolektiborako tresna legez erabiliz.

CreaKtividad es una propuesta grupal de encuentro para mujeres que han desarrollado su parte creadora y creativa. Un espacio abierto y dinámico de comunicación, para conocernos y reconocernos, aplicando una mirada de género al arte. En este taller trabajaremos, a partir de diferentes materiales, técnicas y actividades, el arte como instrumento para la reflexión compartida y el crecimiento personal y colectivo.

## GURE SEXUALITATEA, NORENTZAT? SEXU-GAILU ETA OSASUN-GAILUEN INGURUAN IKUSPEGI BERRI BAT (6 ORDU) / NUESTRA SEXUALIDAD, ¿PARA QUIÉN? UNA NUEVA MIRADA SOBRE LOS ARTÍCULOS SEXUALES Y DE SALUD (6 HORAS)

18 y 19 de octubre. VIERNES, de 17:00 a 20:00 h. SÁBADO, de 10:30 a 13:30 h.

Irakaslea: Mayka Cuadrado · **Matrikula: 5 Euro**

Tailer honetan gure sexualitatea norentzat den hausnartzea da proposamena; gure erotika gogobetetasunez bizitzea nahi dugun ala besteei gustua egiten ahalegintzen ote garen soil soilik. Koitoa, sexu-organoak eta ugalketa ere aztertuko ditugu eta horien zergatia, generoaren ikuspegitik. Tuppersexaren moda aprobetxatuko dugu horiek ikuspegi kritiko batetik aztertzeko. Gainera, beste jabekuntza-modu batzuk ikusiko ditugu, errespetutik, norbere buruaren zaintzatik eta ekologiatik abiatuta.

En este taller se propone reflexionar sobre para quién es nuestra sexualidad; si realmente buscamos vivir nuestra erótica con satisfacción o nos centramos en complacer a otras personas. Revisaremos otras centralidades como el coito, los genitales y la reproducción y la causa de éstas desde una perspectiva de género. Aprovecharemos la moda de los tuppersex para realizar una mirada crítica sobre los mismos. Además, abordaremos otras maneras de empoderamiento desde el respeto, el autocuidado y la ecología, como el empleo de la copa de luna o menstrual.

## AMETATIK ALABETARA: BESTE EMAKUMEEN HERENTZIA BERRAURKITZEA (12 ORDU) / DE MADRES A HIJAS: REDESCUBRIR LA HERENCIA DE OTRAS MUJERES (12 HORAS)

Del 5 de noviembre al 10 de diciembre. MARTES, de 18:00 a 20:00 h.

Irakaslea: Patricia Verdés · **Matrikula: 5 Euro**

Denok sortu gara emakume batengandik. Jatorri femenino hori aitortzea, bere argi-itzalekin, errealitatetik abiatuta, mundu honetan emakume izatearen egintza hobeto bizitzen laguntzen digu. Tailer honetan gure herentzia femeninoaren inguruan hausnartuko dugu, gure jatorri femeninoarekin identifikatzeko eta harreman hori saneatzeko aukera izateko; emakumeetan haragitutako askatasun-erreferenteak edukitzeko; gure subjektibotasun eta nortasun femeninoak arakatzeko eta emakume izatearen esperientziari eta emakumeen arteko harremanei berriz ere zentzu positiboa emateko.

Todas tenemos nuestro origen en una mujer. Reconocer este origen femenino, con sus luces y sombras, desde lo real, nos posibilita vivir mejor el hecho de ser mujeres en este mundo. En este taller reflexionaremos sobre nuestra herencia femenina para reconocernos en nuestro origen femenino y tener la posibilidad de sanear esa relación; tener referentes de libertad encarnados por mujeres; explorar nuestra subjetividad e identidad femeninas y resignificar positivamente la experiencia de ser mujer y las relaciones entre mujeres.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES**

**KULTUR IRTEERA: Urriak 5 - Valle de Ayala (Araba) - 5 euro**

**SALIDA CULTURAL: 5 de Octubre - Valle de Ayala (Álava) - 5 euros**



BERDINTASUNEKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK CHARLAS · ESPACIO DE CREAKTIVIDAD... ETC. · ETA ABAR

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Más información en la microsite de Igualdad: http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp

# Editoriala

Iraila iritsi da, ikasturte politikoa, eskolakoa eta abar hasteko garaia… Liga abuztuan hasia zen jada, goiztiarra izaten baita. Azken finean futbol kontu hori irabazi handiko negozio bat da, eta bizi ditugun garaietan ez da komeni alde batera luzaroan uztea, ea denbora-tarte horretan norbaitek pentsatzeari ekiten dion badaezpada ere … Eta Ligarekin batera kinielak datoz beti, eta horiek albiste izan dira, Kongresuan, Proposamen Ez Legezko eran, emakumezkoen futbol taldeak ere Estatuaren kirol-apustuetako diru-sarreretan parte izatearen alde aurkeztutako ekimen baten ondorioz. Horren asmoa da emakumeek arlo horretan duten diskriminazioa ezabatzea, emakumeen liga ikusaraztea eta, batez ere, irabazi ekonomikoak suspertzea (datuen arabera kirol-apustuetan 45 eta 50 milioi euro artean biltzen dira), emakume jokalariak profesionalak izan daitezen eta, Gizarte Segurantzan alta emanda egon ahal izateko, kirola beste lan batzuekin bateratu beharrik izan ez dezaten.

Guztiz ezberdinak izan arren, albiste izan dira eta oraindik era badira, ondorengo Ministerioen "jokoak":

- Osasun Ministerioarena, zeinak osasun publikoak gizon eta emakumez osatutako bikoteen kasuan bakarrik ordainduko duela lagundutako ugalketa tratamendua ezarri duen, lesbiana-bikoteak eta "bakarrik"dauden emakumezkoak kanpoan utziz. Hainbat arlotatik salatu izan dute neurri hori, duen oinarri ideologiko heteropatriarkalarengatik eta familiaren ikuspegi monolitikoa izateagatik. Zuzenbidean adituek diskriminatzailea dela esan dute neurri hori, bikotea gizonak eta emakumeak osatua egon beharra ezartzea Konstituzio Auzitegiaren doktrinan ezarritakoaren kontrakoa delako, non sexu bereko pertsonen arteko ezkontza bermatzen eta babesten baiten.
- Ruiz-Gallardonen Ministerioak bere aldetik abortuaren lege berria iragarri du berriro ere urriaren amaierarako, eta –bere esanetan– Gobernu guztiak onartua eta babestua izango da.

  Begi-bistakoa denez, hasiberri den ikasturterako agenda feminista bete betea dago, eta datak ezarrita daude jada hala Gobernuak nola katolizismo ultrakontserbadoreenak defendatzen duten "Jainkoaren agindu" diren eredu horiek guztiak salatzeko eta kontra agertzeko jarduteretarako. Guk gizarte ez-konfesionala defendatzen dugu, arrosarioak gure obarioetatik betirako bereizi eta urrunduko dituena, askatasuna eta berdintasuna oinarrizko eskubidetzat izango dituena. Baita kinieletan ere.

Llegó septiembre, el comienzo de los nuevos cursos: político, escolar… La Liga ya había comenzado en agosto, porque suele ser tempranera. Al fin y al cabo, esto del fútbol es un lucrativo negocio, y no es cuestión de dejarlo quieto en estos tiempos que corren, no vaya a ser que, en el intermedio, alguien se ponga a pensar… Y con la Liga llegan siempre las quinielas, que han sido noticia por una iniciativa presentada ante el Congreso en forma de Proposición No de Ley, para la participación de los clubes femeninos de fútbol en los ingresos de las apuestas deportivas del Estado. Su objetivo es acabar con la discriminación de las mujeres en este ámbito, conseguir la visibilidad de la liga femenina y, sobre todo, promover beneficios económicos (los datos dicen que las apuestas deportivas recaudan entre 45 y 50 millones de euros) que permitan que las jugadoras puedan ser profesionales y no necesiten compaginar el deporte con otros trabajos para poder estar dadas de alta en la Seguridad Social.

Con un carácter muy diferente, también han sido y son noticia otras "jugadas" de sendos Ministerios:

- El de Sanidad, que sufragará los tratamientos de reproducción asistida en la sanidad pública solamente a "parejas integradas por un hombre y una mujer", lo cual excluye a las parejas de lesbianas y a las mujeres "solas". Esta medida ha sido denunciada desde diversos ámbitos, por su base ideológica heteropatriarcal y por ampararse en una visión monolítica de la familia. Fuentes expertas en Derecho califican esta medida de discriminatoria, porque exigir como condición que la pareja esté formada por hombre y mujer es contradictorio con la doctrina del Tribunal Constitucional, que ha avalado el matrimonio entre personas del mismo sexo.
- El Ministerio de Ruiz-Gallardón, por su parte, vuelve a la carga con el anuncio de la nueva ley del aborto para finales de octubre, proyecto que –dice– será compartido y respaldado por todo el Gobierno.

  La agenda feminista para el curso que comienza está, como se ve, repleta, y ya hay fecha para las numerosas acciones de denuncia y rechazo a todos esos modelos del "como Dios manda" que propugnan tanto el Gobierno como el catolicismo más ultraconservador. Nosotras defendemos una sociedad aconfesional, que separe y aleje para siempre los rosarios de nuestros ovarios, en la que la libertad y la igualdad se defiendan como derechos fundamentales. Hasta en las quinielas.

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## CEPA ERMUA HHI
### CENTRO DE EDUCACIÓN DE PERSONAS ADULTAS

### ENSEÑANZA OFICIAL Y GRATUITA
### DOHAKO IRAKASKUNTZA OFIZIALA

Ezagutza edo jakintza oinarri oinarrizko tresna da pertsonaren eta taldearen jabekuntzarako. Pertsonok ikasketa-prozesu ezberdinetan murgilduta gaude denbora guztian, eta Ermuko pertsona helduen heziketan hainbat urte daramatzan ikastegi honen helburua irakastea da.

Para quienes deseen retomar sus estudios, obtener algún título básico, quieran aprender a leer y/o escribir, o deseen iniciar el aprendizaje de castellano o euskera, el Centro ofrece, este curso 2013/2014, el siguiente programa:

- **ENSEÑANZA REGLADA:**
  Castellano para personas extranjeras
  GRADO II (Enseñanzas Iniciales)
- **ENSEÑANZA NO REGLADA:**
  Iniciación a la informática
  Iniciación al euskera

Las clases se imparten en horario de mañana, tarde y noche.
Es necesaria la matriculación previa, en los plazos que estipule el Centro.

Baldintzak: 18 urte baino gehiago edukitzea edo matrikula egingo den urtean betetzea. Ezingo du irakaskuntza arautuko ezein maila egin DBHko titulua edo hortik gorako ikasketa-mailako titulua duen inork.

Ikastegiak gainera, eskolaz kanpoko beste jarduera batzuk ere antolatzen ditu: museoen bisitak, kontzertuak, txangoak eta abar…

**Informa zaitez!**






**Helbidea:**
C/Goienkale s/n, tercera planta, antiguo colegio Teresa Murga
**Ordutegia:**
Lunes y Jueves, de 17:30 a 19:30 h.
**Telefonoa:**
943 175 030
**www.epadurango.hezkuntza.net**

# PIKARA

## ONLINE MAGAZINE




Pikara Magazine es un proyecto de la asociación sin ánimo de lucro EME Komunikazioa, y fue fundada en 2010 por las periodistas June Fernández, Lucía Martínez Odriozola, Itziar Abad y Maite Asensio Lozano. Su objetivo no es informar sobre temas de mujeres, sino hacer buen periodismo con una mirada feminista, inclusiva, transformadora, comprometida, transgresora “…y disfrutona”.

Egiten duen kazetaritza aintzatetsia eta –izan eresaritua izan da. Pikara Magazineko zuzendaria June Fernández Almeriako kazetaritza Elkarteak ematen duen II “Colombine 2013” kazetaritza sariaren irabazle izan da.

“Zalantza egitea gustatzen zaigu; ez gara dogmazaleak”. Errealitatea ulertzen eta azaltzen ahalegintzen den kazetaritza-mota defendatzen dute, gauzak arroztasunez deskribatzera mugatu barik testuinguruan kokatu eta interpretatzeko gai dena.

Se definen como “feministas, antirracistas y anticapitalistas”. Se ubican en un compromiso social optimista: “queremos denunciar realidades duras e injustas, pero también queremos celebrar muchas cosas: la diversidad, el poder de transformación de las personas, las propuestas a favor de un mundo mejor… La alegría es más revolucionaria que el cabreo con el mundo”.
En cuanto al formato, apuestan por lo multimedia y consideran las redes sociales una herramienta excepcional para difundir su proyecto y hacerlo más interactivo.

Proiektu honetan hainbat modutan parte hartu edo lagun dezakezu: berori hedatuz eta ezagutzera emanez, Pikararen lagun eginez, argazkiak, irudiak, marrazkiak eta abar bidaliz, webgunea mantentzen lagunduz, erreportaiak egiteko gaiak proposatuz… Baduzu harpidedun egiterik ere, Pikara Magazinen hileko alea etxean jasotzeko.

**http://www.pikaramagazine.com/contacta/**
**http://www.facebook.com/pikaramagazine**


BELDUR BARIK
LEHIAKETA 2013
Alazne Lastra: 2011.
Ganadora de la edición de 2011
BELDUR BARIK
ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!
Parte hartu eta etorri Topaketara.
Azaroaren 30ean, Basaurin, denok indarkeria sexistaren aurka!
Sari banaketa, tailerrak, erakusketak…
COMPARTE TU ACTITUD BELDUR BARIK!
Participa y ven a la Topaketa!
El 30 de noviembre, en Basauri, movilízate contra la violencia sexista!
Entrega de premios, talleres, exposiciones…
Informazio gehiago:
Más información:
www.beldurbarik.org
Ermuko Emakumeen Topalekua / Casa de la Mujer de Ermua Tf. 943 171 030 · www.ermua.es
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES
BERDINSAREA
EUDEL
eitb

# MIKROMATXISMOAK: IKUSTEN EZ DEN INDARKERIA

# MICROMACHISMOS: LA VIOLENCIA INVISIBLE

>> SON “PEQUEÑOS, CASI IMPERCEPTIBLES CONTROLES Y ABUSOS DE PODER CUASINORMALIZADOS QUE LOS VARONES EJECUTAN PERMANENTEMENTE. SON HÁBILES ARTES DE DOMINIO, MANIOBRAS Y ESTRATEGIAS QUE, SIN SER MUY NOTABLES, RESTRINGEN Y VIOLENTAN INSIDIOSA Y REITERADAMENTE EL PODER PERSONAL, LA AUTONOMÍA Y EL EQUILIBRIO PSÍQUICO DE LAS MUJERES, ATENTANDO ADEMÁS CONTRA LA DEMOCRATIZACIÓN DE LAS RELACIONES. DADA SU INVISIBILIDAD, SE EJERCEN GENERALMENTE CON TOTAL IMPUNIDAD”

(BONINO, LUIS)

Son micromachismos todas las conductas machistas sutiles que las mujeres sufrimos a diario, en muchos casos sin ser siquiera conscientes, y, por lo tanto, que no se reconocen ni se denuncian como actos machistas. Eguneroko bizitzako menderatze- eta diskriminazio-jolas ikusezin horiek dira genero-desberdintasunaren euskarria, legitimatu eta mantendu egiten dutelako.

Desde 1991, el término “micromachismos”, acuñado por Luis Bonino, se ha ido popularizando progresivamente con la intención de visibilizar estas otras formas de machismo, que pasan más desapercibidas, pero son igual de dañinas.

La lista de trampas micromachistas es interminable: el uso sexista del lenguaje, las bromas y chistes de contenido sexual referidos a las mujeres, la defensa de los celos como parte inherente del amor, el control sobre la pareja (horarios, actividades, relaciones sociales, citas…), la falta de responsabilidad sobre las tareas de cuidados o el trabajo doméstico, los silencios desdeñosos utilizados como forma de manipulación, la intimidación, los comentarios ofensivos, la desautorización y la desvalorización, el chantaje emocional, el control económico, el paternalismo… (Bonino, 2005: 98-100).

### Ohitura leunak baina ikaragarri eraginkorrak
### Prácticas sutiles pero efectivas

Los micromachismos suelen pasan inadvertidos y, cuando se denuncian, son tildados de exageracio-











nes (¡no es para tanto!) o se les resta importancia (¡yo no soy así!). Sin embargo, naturalizan la ideología machista y debilitan la autoestima de las mujeres y su capacidad de autodefensa, tanto a nivel personal como colectivo.

Gainera, berdintasuna lortu izanaren ilusioa (ez baita errealiatea) bizi dugun testuinguru honetan estalki itxi eta gaizto bat sortu da eguneroko matxismo leun horren inguruan, feminismoaren eta berdintasunaren aldeko borrokaren kontrakotasuna puztu eta halakoak salatzea behargabekoa eta gehiegizkoa dela defendatzen delarik.

Ohitura eta jokabide mikromatxistak ohikoak dira gure gizartean, eta gizon edo emakume legez hezitzen gaituzten heziketa patriarkal eta desberdin horren baitan helarazten zaizkigu Berdintasunaren kontzientzia hartzea, prestakuntza eta hezkuntza funtsezkoak dira ezkutuko matxismo horiek antzemateko eta salatzeko.

¿Quiéres saber cómo detectar los micromachismos? Ante determinada situación, aplica la regla de la inversión, poniendo a un hombre en el mismo lugar, situación, conducta… que a la mujer, y luego analiza si hablamos, percibimos y tratamos de la misma forma a mujeres que a hombres.

**Maskulinotasun berrien oinarriak ezarriz**
**Cimentando nuevas masculinidades**

La educación en y para la igualdad y la movilización de mujeres y hombres hacia ese mismo objetivo son las herramientas para cuestionar los erróneos mandatos de esa masculinidad machista. Mugimendu feministaz gain, orain badira gizonez eratutako sare eta taldeak (AHIGE-Asociación de Hombres

**Mikromatxismoen inguruan informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo web loturetan eta liburuetan aurki dezakezue:**

http://gentedigital.es/comunidad/june/2011/12/16/paranoicas/
http://nuriavarela.com/tag/miguel-lorente/
http://nuriavarela.com/dia-12-micromachismos/
http://www.luisbonino.com/PUBLI05.html
http://espana.everydaysexism.com/
“La dominación masculina”, Pierre Bourdieu, Editorial Anagrama, (2000).



por la Igualdad de Género; Red Iberoamericana de Masculinidades, Ermuko berdintasunaren aldeko gizonen taldea "Zipriztintzen"...) "generoagatiko pribilegioen" eguneroko erabilera naturalizatuaren inguruan autokritika egiten hasi direnak eta egunez egun maskulinotasun eredu berriak, berdintasunezkoagoak, suspertzeko lanean ari direnak, jarrerak eta jokabideak, aitatasun arduratsuarekin lotutakoez gain, aldatzen jarraitzeko, jokabide matxista guztiak -leunak direnak eta ez direnak,- antzematen eta ezabatzen ahaleginduz.

Nahitatezkoa da gizartearen egiturazko eta zeharkako aldaketa bat egitea, kultura, politika, ekonomia eta eremu guztietara iritsiko dena, eta Purificación Mayobre Rodriguezen esanetan, patriarkatuaren kontra aukera askatzailea izango dena, arau eta ohitura baztertzailak alde batera uzteko eta pentsamolde ezberdinen alde apustu egiteko gonbidapena".

## Aldarrikatzeko eta ospatzeko egunak
## Días para celebrar y reivindicar

**28 de septiembre:** Día por la despenalización del aborto

**15 octubre:** Día internacional de las mujeres rurales

**19 octubre:** Día contra el cáncer de mama

**25 noviembre:** Día internacional contra la violencia hacia las mujeres.

# KALE INKESTA

## Mikromatxismoak · Los Micromachismos

**Luis Bonino psikiatrak "mikromatxismo" deitzen die jokoera sotilen zerrenda amaigabe bati, zeinak eguneroko bizitzan emakumea menderatzea eta bortizkeria patriarkala erabiltzea ezaugarri duten: txantxak, txisteak, bikotearen kontrola, zainketa- edo etxeko zereginen erantzukizun falta, larderia, etxeko diruaren kontrola, emakumea baliogabetzea, xantaia emozionala, paternalismoa… Ikustezinak direnez gero, zigorgabetasun osoz erabiltzen dira.**

Se conoce como "micromachismos" a las prácticas y sutiles juegos de dominación y violencia masculina en la vida cotidiana. (Término acuñado por Luis Bonino). La lista de ardides micromachistas es interminable: lee el reportaje de este mismo número de Nahita.

## Preguntas GALDERAK

1. **Entzun al duzu inoiz "mikromatxismo" hitza? /** ¿Has oído alguna vez la expresión "micromachismo"?
2. **Matxistak iruditzen al zaizkizu halako jokabideak? /** ¿Consideras que estas conductas son machistas?
3. **Zein dira zure ustez "mikromatxismo"rik ohikoenak? /** En tu opinión, ¿cuáles son los "micromachismos" más habituales?
4. **Kalte egiten diela uste al duzu emakumeen egoerari eta haien bizitzari? Eta jendarteari? /** ¿Crees que repercuten negativamente en la situación y las vidas de las mujeres? ¿Y para la sociedad?

### IDOIA CASTAÑO
**45 años**



**1.** No
**2.** Desde luego. Por ejemplo, si el conductor de un autobús considera guapa a una chica, le admite que pague con un billete de 20€ pero si, por el contrario, no le gusta, puede hasta montarle una bronca por no llevar cambio.
**3.** Es en el propio lenguaje donde, probablemente, más micromachismos reflejemos.
**4.** Sí, porque el lenguaje es reflejo de lo que somos. Si somos machistas, nuestro lenguaje también lo es.

### JOSE A. MUÑOZ "GORDO"
**47 años**



**1/2.** Sí, he leído sobre el tema. Son totalmente machistas.
**3.** Los micromachismos más habituales son los que tienen que ver con los chantajes emocionales, los silencios… el ignorar también es un castigo o agresión, el lenguaje y la forma en que lo usamos…
**4.** Para mí el reparto desigual de las tareas y el lenguaje sexista son machismos declarados, no son formas sutiles de machismo. Más que micromachismo, es desigualdad.

### RIKAR TXABARRI
**44 urte**



**1/2** Bai
**3.** Paternalismoa mikromatxismo-mota guztiz ohikoa da; edo ikastetxean mutikoak futbolera eta neskatoak gimnasia erritmikora joatea, normaltzat hartzen dugun hori, matxismo-era bat da.
**4.** Nire ustez etxeko lanen banaketa ezberdina gure heziketa matxistaren ondorio argia da. Hizkera sexista bai, mikromatxismoa iruditzen zait, ez da horrenbeste nabaritzen eta ez zaio garrantziarik ematen.

### OLAIA GERRIKABEITIA
**30 urte**



**1.** Bai
**2.** Jakina. Mikromatxismoek matxismoa islatzen dute. Fijatzen gara gehiago tratu txarrak edo emakumeen hilketak daudenean, baina halako jokaera matxisten atzean eguneroko mikromatxismoak daude
**3.** Adibidez, emakumeak janzterakoan… beti dago zer esan: "Zelan joaten zara horrela jantzita?! Kontuz ibili! Zerbait pasako zaizu". Dirudi emakumeok babesa behar dugula… paternalismoa, hain zuzen.
**4.** Kalte handia egiten digu, gugan dugun segurtasuna murrizten dute, berdintasunetik urruntzen gaituzte.

# PASATIEMPOS

## DENBORAPASA



### Mikromatxismo, matxismo, berdintasunezkoa....

### ¿Adviertes las diferencias?

Te mostramos diferentes situaciones y afirmaciones para que valores si, a tu juicio, se trata de frases o conductas igualitarias, o si, por el contrario, son directamente machistas o se pueden denominar como "micromachismos" (Si no lo conoces, lee previamente la definición de este término).

**Micromachismos:** conductas sutiles de dominación y violencia hacia las mujeres, es decir, machistas, que se dan de forma cotidiana, y se tienen como normales. Pasan desapercibidas para la mayoría de las personas, o se maquillan como expresiones de cariño, protección… Son, igualmente, expresiones de machismo. Aunque no lo parezca, son muy dañinas, ya que son conductas que justifican, mantienen y promueven la desigualdad y la discriminación de las mujeres.

| | A Mikromatxismo - B Matxismo - C Berdintasunezkoa | A | B | C |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Yo (soy un chico), cuando no me acuerdo del nombre de la persona con la que estoy hablando, llamo "cielo" o "txiki" a las chicas, y "macho" o "tío" a los chicos | | | |
| 2 | Duela bi hilabete (ni neska naiz), uda-egun baten, autobusean nindoala gizon batek izterrean jarri zidan eskua, zerbait galdetzen zidan bitartean | | | |
| 3 | Me han enseñado (soy una chica) que es de buena educación abrir la puerta y dejar pasar a las demás personas antes que yo | | | |
| 4 | Hamalau urterekin oso ona nintzen lasterketetan (ni neska naiz), eta Carl Lewis esaten zidaten. Nire ahizpari Mike Tyson deitzen zioten, oso indartsua zelako | | | |
| 5 | Hace unos días (yo soy un chico), un compañero de trabajo me preguntó si tenía hij@s, y cómo hacía para conciliar lo laboral con los trabajos de casa | | | |
| 6 | Lagun batek (mutila da), bere errenta-aitorpena aztertzen laguntzen nengoela, alkondararen beste botoi bat askatu ezkero politago geratuko zitzaidala esan zidan (ni neska naiz) | | | |
| 7 | Yo (soy un chico), opino que está demostrado que las mujeres, por naturaleza, tienen mayor sensibilidad para cuidar a las personas ancianas | | | |
| 8 | Mikel eta Maria auto bat erostera etorri dira, eta nik (mutila naiz) Maria ez aspertzeko, Mikeli azaldu dizkiot autoaren prestazioak, emakumeek ez baitute horretaz ulertzen | | | |

**ERANTZUNA / RESPUESTAS**

1: A (edo B), 2: B, 3: C, 4: B (edo A), 5: C, 6: B, 7: B, 8: B (edo A)

# Noticias de interés

## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> DEPORTE - REMO

Las chicas de la "Telmo Deun" de Zumaia ganan la Bandera de la Concha. Zorionak!!

### >> EMAKUMEEN ESKUBIDEEN AUZITEGIAREN EBAZPENA

Viena+20 Euskal Herria 2013 Emakumeen Eskubideen Auzitegia, ekainean egin zen Bilbon. Bertan, abortatzeko eskubidea, indarkeriatik kanpora bizimodu askea izateko eskubidea eta emakumeak bizi-maila duina izateko eskubide-urratzeak epaitu ziren. Bi egunetan zehar adituen aurkezpenak, 8 emakumeren testigantzak eta fiskalen akusazioak entzun eta gero, epaimahaiak bere ebazpena eman zuen. Honako web loturan dago eskuragarri: http://www.mugarikgabe.org/index.php/eu/novedades/tribunal-de-derechos-de-las-mujeres

### >> PREMIO A LA IGUALDAD

Empar Pineda i Erdozia ha recibido el premio (tercera edición) a los valores de la igualdad, por parte de la fundación 1° de mayo de CCOO. Licenciada en Filosofía y Letras, Empar es una de las mujeres más destacadas del movimiento feminista del estado. Como activista feminista, ha vivido en primera persona, organizado, impulsado y participado, de los acontecimientos más importantes en la lucha por la liberación de las mujeres y por la igualdad de género. Más información en: http://www.1mayo.ccoo.es/nova/NNws_ShwNewDup?codigo=4222&cod_primaria=1158&cod_secundaria=1158

### >> EMAKUMEAK ZIENTZIAREN MUNDUAN

Emakundek zientziaren munduan dagoen genero-haustura aztertu du EHUren udako ikastaroetan. Horretarako, "Miradas de género a la ciencia, la tecnología y la innovación" ikastaroa antolatu zuen ekainean Donostian. Ikastaroaren helburuetako batzuk ziren zientziaren esparruan, bai arlo akademikoan bai lan-munduan, dagoen genero-haustura aztertzea eta emakumeak eremu zientifiko, teknologiko eta berrikuntzakoan hobeto kokatzeko estrategiak bilatzea. Informazio gehiago nahi izanez gero: http://www.emakunde.euskadi.net/noticia/2013/emakundek-zientzia-munduan-dagoen-genero-arraila-aztertuko-du-ehuren-uda-ikastaroetan/u72-20010/eu/

### >> GUIA EXPRESS DEL HOMBRE IGUALITARIO

Esta pequeña guía constituye un ejemplo más de cómo los hombres deben sumarse al camino de la igualdad. En ella se ofrecen algunos consejos y herramientas para lograr una sociedad más justa e igualitaria, sin estereotipos ni prejuicios. Está disponible en formato ebook y contiene algunos tests y materiales para rellenar. Podréis descargarla de forma gratuita en el siguiente enlace: http://conigualdad.org/blog/2013/04/19/libro-guia-express-para-el-hombre-igualitario/

### >> EMAKUMEEN ARTEKO ALIANTZAK

Iaz EUDELek eta Emakundek Virginia Woolf Basqueskolako proiektua abiarazi zuten, Euskadiko emakume hautetsiei zuzendua. Gure lurraldeko Jabekuntza Eskolen ereduari jarraituz, ekimenak prestakuntza-, eztabaida- eta hausnarketa-espazio bat eskaini nahi die gur emakume hautetsiei, berdintasun politikekin eta emakumeen beraien esperientziarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko, euren udal funtzioak betetzearekin batera. Aurten, "Emakumeen arteko aliantzak eta itunak: beste politika baterantz" jardunaldia antolatu dute. Informazio gehiago eskura dezakezue honako loturan: http://www.eudel.net/web/basqueskola2013/index_eu.html

### >> PARTICIPANDO CREAMOS ESPACIOS DE IGUALDAD

Diversas asociaciones de mujeres propusieron a la revista Trabajadora, que pronto cumplirá 30 años de andadura, como candidata al VI Premio "Participando creamos espacios de igualdad", en la categoría de comunicación, por combatir la discriminación por razón de sexo y favorecer la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, resultando finalmente premiada en esta categoría.




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo,
Zaida Fernández, Olga Bayón y Eva Carballal.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
***Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.***



*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
***Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.***



**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 · Faxa: 943 170 123 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: www.ermua.es



Depósito Legal: BI-243/2010